



HERRI MUSIKAREN TXOKOA

BERRIAK

HERRI MUSIKAREN TXOKOAREN BULETINA

2009ko martxo

29. zenbakia

URTEARI ONGIETORRIA KANTARI

Urte zaharra bukatu eta berria hastera zihoala "Dios te salbe" kantatuaz hurbildu zen gurera auzoko lagun talde bat. Azken hamarkadetan Oiartzunen ohitura honek aldaera ezberdinak ezagutu ditu

Abenduaren 31 zen eta Herri Musikaren Txokoan bisita berezi bat jaso genuen. Hogei bat gaztek osatutako taldea zen eta kantatzera etorri ziren, koplak kantatzera. Usadio zaharra mantentze aldera urte zaharrari adio esan eta berriari ongietorria emateko auzoan kantari ibiliak ziren. Aurreko egunetan lagunartean sortutako ideia gorpuzten arratsaldeko laurak aldera hasi ziren Auzokalten. Bertan bildu ziren lagunuen artean baziren bertsolariak, baita musikariak ere, eta denak zuten eztarria kantatzeko prest.

Gehienak Ergoiendarrak baziren ere, tartean bazen auzotik kanpoko lagun bat ere. Dena den, guztiek zuten helburu bat: garai bateko ohitura zaharra berreskuratu eta urte berriari ongietorria emanez ongi pasatzea.

Auzokaltetik abiatu eta *Pauko errotaraino* joan ziren auzoa trikitixa hotsekin alaituz eta tartean topatzen zituzten etxeetan koplak kantatzera geratuaz.

Non geratu, hura kantatu

Bertsolariek lekuan lekuko egoerara egokitzen zituzten kople-tako gaiak. Tabernari baten etxe aurrean tokatuz gero koplaren batek tragoska eskatzen zuen. Edo ezkonberri batzuen etxe atarian ezkontzaren inguruan kantatzen zen. Tartean egoera xebreak ere gertatu ziren. Horietako bat bertsolarietako bat lehen bizi zen etxearen aurrean kopletan aritu zirenekoa. Bertan bizi zenari lehen etxe horretan



Ergoien koplak kantatzen aritu zen taldea. HMT

bera bizitu zela kontatu zion bertsolariak, baita etxea aldatua ikusten zuela ere.

Horrela pasa zuten ba gazte hauek arratsaldea: kantari eta, tarteka, inork deus eskaintzen zuenean, trago bat hartuaz edo zer edo zer janez. Ergoiendik atera aurretik Herri Musikaren Txokora egin zuten bisita eta ondoren Elizaldera joan ziren, han ere plaza inguruan koplak kantatzera. Ez zen jende faltarik plazan eta giro ederrean aritu ziren afaltzera joateko ordua bederatziak aldera iritsi zen arte.

Lehendik datorren ohitura

Gazte hauen aurretik ere herrian koplak kantatuz neska-mutil askok eman dio urte berriari ongietorria. Hori bai, auzoaren arabera ospakizuna pixka bat aldatzen zela ere esan behar dugu. Hala, inguru kaletarrak eta baserritarrak bazituzten zenbait ezberdintasun.

1960. hamarkadaren bukaera

aldera, adibidez, Elizalden ibiltzen zen koadrilak hartu-eman handia zuen Erreterria eta Lezoko taldeekin eta elkarrekin antolatu eta kantatzen zituzten koplak. Afaldu aurretik ateratzen ziren kantari eta kanturako lekua aldatu egiten zuten urtearen arabera. Urte batean Urte Zaharreko arratsaldean Oiartzunen ateratzen ziren denak, hurrengoan berriz Erreterrian, eta abar. Horrela talde handiak biltzea lortzen zuten, ehun pertsonatik gorako taldeak.

Kanpokaldeko auzoetako koadri-letan bazen afaldu ondoren ateratzeko ohitura ere. Esate baterako, Ergoien eta Iturriozko gazteak afaldu ondoren ibiltzen ziren koplak kantari. Gaua lagun zutela auzoko baserriak bisitatzen zituzten koplak kantatuz urte berriaren etorrera ospatuz. Zenbaitetan gau osoa pasatzen zuten kantari goizaldera herriko plazara, Elizaldera, biltzen zire-larik.

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udaberriko kontzertua

2009ko apirilaren 4an - 18,30tan - HM Txokoan

ROBERTO ETXEBARRIA ETA KEPA ARRIZABALAGA
Bizkaiko trikitixa



Bikote moduan euren hasiera 1984an kokatzen bada ere, aurretik trikitixaren inguruan ibilbidea eginak dira.

Kepa Arrizabalaga, Tomas Arrizabalaga "Tomasitze", bere aita zenarekin hasi zen panderoa astintzen; hasieran famili giroan, eta denborarekin plazaz plaza. Ondoren, Rufino Arrolarekin ere hainbat urtean ibilitakoa da, baita sasoi hartako beste trikitilari batzuekin ere. Roberto Rufinoren ikaslea zelarik eurekin jotzen hasi zen. Orduetik gaur egunera arte Euskal Herriko hainbat plazatan ibilitako bikotea osatzen dute. Tradizioa teknika, errepertorio eta estilo berriekin uztartu dituzte estilo propio eta naturala bereganatuz.

Txapelketei dagokienez, urte ezberdinetan zehar aurkeztu izan dira Euskal Herri mailan antolaturiko txapelketetan. Euren artean, nabarmentzekoak ditugu 1991n eta 1992an irabazitako Pieza Berrien Txapelketa, "Bihotzetik Bihotzari" jotarekin eta "Mutil Zahar" porrusaldarekin, hurrenez hurren.

Bikoteak dirauen urteetan nazio eta nazioarte mailako folk jaialdi ugaritan aritzeko aukera izan dute. Horien adibide dira Expo Sevilla 1992, Italia 1993, Estatu Batuetako Euskal Jaia, 1992, 1996 eta 2000, Teruel 2004 eta 2007.

1995 eta 1999 bitartean, bertsoak eta koplak oinarritzat eduki zituen "Paperetik Plazara" taldeko kide izan ziren.

Diskografiari erreparatuz 1993an argitaratu zen bikote moduan duten diskoa: Bihotzetik Bihotzari. Horretaz aparte, kolaborazio asko egin dituzte bestelako disko eta grabazioetan parte hartuz.

Udaberriko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartean musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita.

Prezioa: 15 euro.

FRANS HATTINK ETA DICK VAN DER HARST

Herbehereetako kornamusa

Frans Hattink kornamusen munduan murgildurik dabil 70. hamarkadaz geroztik. Era batera edo bestera soinu-tresna honen aukerak esploratzen aritu da eta gaur egun bere lanbidea da kornamusak egitea, baita jotzen erakustea ere. Kontzertu honetan Dick van der Harst-ekin arituko da. Hau Ganteko konpositore ofiziala da eta hainbat soinu-tresnaren artean kornamusak jotzen ditu. Frans aditua da azken bi mende-etako musika herrikoian eta Dick berriz Erdi Aroaren hasierako musikan. Elkarrekin Holanda, Belgika eta Frantziako doinuak joko dizkigute, dantzarako soinuak batez ere. Batzuetan elkarrekin joko dute eta besteetan bakarlanean entzungo ditugu. Joko duten guztia

musika herrikoia oinarritzat hartuta beraiek egingo dako moldaketak izango dira. Tarteka interpretazioa jatorrizkora hurbilduko da eta besteetan Dick-ek ematen dion ukitu berezietatik gertuago egongo da. Edozein kasutan beti errespetatuko dute musika eta tradizioa.

Soinu-tresnei dagokienez, kontzertuan erabiliko dituztenak Frans-ek egindakoak izango dira eta Frantzia erdialdeko kornamusen oinarrituak daude. Esan beharra dago Erdi Aroko, eta lehenagoko, Belgikan ez dela MUCHOSA ez den kornamusarik ezagutzen. Beraz, Holanda eta Belgikako soinu-tresnen egileek Frantziako kornamusak hartu zituzten oinarritzat hainbat ikerketa eta moldaketaren ondoren soinu-tresna



berri bat sortzeko: kornamusa belgikarra edo alemaniarra deitzen zaiona. Hotsa sortzeko bi sistema erabiltzen dituzte. Hala, punteroan mihi bikoitza erabiltzen da gure arteko dultzainak egiten duen moduan. Bordoietan berriz mihi bakuna erabiltzen da, gure alboketan bezala. Oinarri armonikoa jartzen duten bordoiak kopurua ez da beti berdina izaten. Badira bakarra duten tresnak, baina bi eta hirukoak ere topa daitezke.

**kontzertu honen
laguntzaileak:**

AUZOKALTE

ERGOIENGO AUZO
ELKARTEA



TIRIKITRAUKI
MUSIKA DENDA

esku-soinuak
9 ZERO SETTE
Lasarte-Oria
Tel/Fax 943 372 617
www.tirikitrauki.com

HERNANIN JAIALDIAK

Hurrengo hilabeteetan Hernanin herri musikan ezagunak diren bi soinu-tresnen inguruko jaialdia izango dira.

Lehenengo txistuari tokatuko zaio. Apirilaren 24tik 26ra doan asteburuan protagonista txistua duten kontzertu, lehiaketa eta kale ekintzak antolatu dituzte Hernaniko Musika Eskola Publikoko Txistulari Taldeak, Hernaniko Txistulari Bandak eta Euskal Herriko Txistulari Elkarteak.

Ondoren, hilabete bat beranduago, maiatzaren 21etik 23ra, txalaparta izango da Hernani argituko duen izarra. Orduan izango den **23. Txalaparta Festarako** hainbat ekitaldi lotu dituzte antolatzaileek. Aurreko urteetako egitarauarekin alderatuz bi aldaketa nagusi topatzen ditugu. Batetik, txalapartaren inguruan Pelex artistak antolatu duen **HOTSEZ HOTZ** erakus-keta eta bestetik Madrilen Txalaparta taldearen emanaldia.



JENDEAREN ERANTZUN APARTA

Azkenengo kontzertua lehenengo abenduko lehen astean izan zen. Ohiko lekua utzita Oiartzungo udaletxera eraman genuen eszenatokia. Aukeratutako eguna abenduko zubian sartzen zelarik kontrakoa espero baziteken ere, jendearen erantzuna inoiz ez bezalakoa izan zen. Udaletxeko areto nagusia guztiz bete zen jende dezente kontzertua zutik ikusi behar izan zuelarik. Han izan zirenek kantaldi polita entzuteko aukera izan zuten. Lehenengo guztiok ezagutzen ditugun bertso zaharrak gogoratu genituen Zarauzko Mantxi eta Etxaberekin. Ondoren, kontzertuari erremate beroa eman zioten Argentinako Maral taldekoek beraien herriko abestiekin.

HERNANIKO V. TXISTULARI JAIALDIA EGITARAUA

2009-04-24, ostirala

19:30'etan Kontzertua Biteri kultur etxean
ARZENATARRAK

2009-04-25, larunbata

11:30'etatik aurrera Milagrosa kaperan
Hernaniko V. Txistulari Gazteen Txapelketa

11:30 A kategoria (12 urte arte)

12:00 B kategoria (13-16 urte)

17:00 D kategoria (taldeak)

18:30 Sari banaketa

2009-04-26, igandea

10:00'etatik aurrera herri osoan
Txistularien topaketa

10:00 Dianak herriko kaskoan
eta inguruko auzoetan

12:30 Dantzaldia Plaza Berrin (eguraldi txarra
gingo balu Udaletxeko arkupeetan)

14:00 Herri bazkaria. Santa Barbara elkartean
Izena emateko epea: apirilak 22

Telefonoa: 943 33 70 50

e-mail: i-eguren@hernani.net

Prezioa: 20 euro

18:30 Kalejira eta dantza soinuak herriko
kale eta plazetan



Argentinako Maral taldea kontzertuko une batean. HMT

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabetetan: bisitari kopurua: 556

Antolatutako taldeak: 29

Bisitari kopurua martxora arte: 20.587

WEB ORRIRA BISITAK

Azken bi hilabetetan: 7383

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org

www.herrimusika.org

